

## **LEZO / Udal liburutegiak itxita jarraituko du, lanen atzerapenarengatik**

**Datorren astelehenean irekitzea aurreikusi zuten arren, berritze eta egokitze lanak atzeratzen ari dira**

E. GARTZIA

Lezoko Andreone Udal Liburutegiak itxita jarraituko du datozen egunetan. Astelehenean, hilaren 20an, irekitzea aurreikusi zuten, baina egokitze eta berritze lanek atzerapenak izan dituzte. Lan horiek bukatu bezain laster berriz ere zabalduko dutela jakinarazi du Lander Zurutuza liburuzainak. Gogorarazi duenez, inguruko herrietako liburutegietan Lezoko Udal Liburutegiko txartela erabil daiteke, "inolako arazorik gabe. Horrez gain, mailegatutako liburuak eta bestelakoak itzultzeko epea luzatu dutela ere adierazi du liburuzainak. "Sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu dute liburutegiaren arduradunek.

Pasa den ekainaren 21ean hasi zituzten liburutegiko lanak. Besteak beste, erabiltzaileentzako harrera hobetu dute eta KZgunea zegoen solairua liburutegiarena izatera pasatuko da. Gune hori lekuz aldatuko dute.